## II TITULUA

## HABEren MENPEKO EUSKALTEGI PUBLIKOAK

*Bederatzigarren artikulua*

1. HABEren menpeko Euskaltegi Publiko guztietan, Azaroaren 25eko 29/1983. Legeak bere 15. artikuluan dioenaren arabera Zuzendari eta Idazkari bana behintzat egongo da. Hauek, euskaltegi hartako irakasleak izango dira, irakaskuntzan nahiz euskaltegian bertan nahiz beste batean, gutxieneko bi urteko antzinatasuna beharko dutelarik.

2. Izandapen hori hiru urtetarako izango da. Halere, epe hori bukatu baino lehen HABEren Lehendakariak kargua utzierazi dieraieke, horretarako Zuzendaritza Batzordearekin aurrez hitzamendurik.

*Hamargarren artikulua*

Oraingo Dekretua indarrean jartzetik sei hilabeteko epearen buruan, HABEren menpeko Euskaltegi Publikoek beren Barne Araudia egin beharko dute. Araudi honetan eta Euskaltegi bakoitzak bere ezaugarrien arabera, bestelako partaidetza eta gobernu organo berezirik aurrikus dezake. Araudi hau HABEre Lehendakariak ontzat eman beharko du, hiru hilabeteko epean aurkakorik esango ez balu, baieztatua gelditzen delarik.

AZKEN XEDAPENA

HABEren Lehendakariari Zezendaritza Batzordeak eztabaidatu ondoren Sekzioaren mailako, nahiz apalagoko, unitate organikoak sortzeko eta ezabatzeko baimena ematen zaio, Dekretuan ebatzitakoa aplikatu eta garatzeko. Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egun berean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1984ko Ekainaren 14ean.

Lehendakariak,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Kultura Sailburuak,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

## TITULO II

## DE LOS EUSKALTEGIS PUBLICOS DEPENDIENTES DE HABE

*Artículo noveno*

1. En todos los Euskaltegis Públicos dependientes de HABE existirá al menos un Director y un Secretario de conformidad con lo dispuesto en el artículo decimoquinto de la Ley 29/1983, de 25 de Noviembre, los cuales deberán ser profesores del correspodiente Euskaltegi y con al menos dos años de antigüedad en el ejercicio de la docencia en el mismo u otro Euskaltegi.

2. Su nombramiento será para un período de tres años. No obstante, podrán ser cesados antes de finalizar dicho período por el Presidente de HABE, previo acuerdo en tal sentido del Patronato Rector.

*Artículo décimo*

En un plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, los Euskaltegis Públicos dependientes de HABE deberán elaborar el Reglamento de Régimen Interior en el que podrán prever otros órganos de participación y de gobierno de acuerdo con las características del Euskaltegi. Dicho Reglamento deberá ser aprobado por el Presidente de HABE, entendiéndose que lo está si en un plazo de tres meses a partir de su presentación no hay pronunciamiento expreso.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Presidente de HABE para crear y suprimir unidades orgánicas de rango igual o inferior al de Sección previa deliberación del Patronato Rector, así como para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto, que entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 12 de Junio de 1984.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Cultura,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

1323

Euskaltegien erregimen juridikoa eta finantzaketa araupetzen duen, Ekainaren 12ko 1984/189 DEKRETUA.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzen eta Euskaltegiak arautzen dituen 1983. Azaroaren 25eko 29. Legeak araupetzen ditu Euskaltegietako erregimen juridikoaren oinarriak: Euskaltegiak, titularraren arabera, publikoak eta pribatuak izan daitezke, azken hauek homologatuak eta libreak izan daitezkeelarik. Kultura Sailaren 1984.eko ekainaren 8ko AGINDUAn jasotako baldintza pedagogiko-didaktiko eta eraketa mailako erizpideen arabera. Era berean erabakitzen du, erreglamenduz arautuko dela Udal Euskaltegiei dagozkien dirutza publikoetako dirulaguntzen erregimena eta homologatu-pribatuei dagozkien subentzioak, azkenik helburu horietako emango diren fondoak HABEren urteko presupostuari erantsiko zaizkiola erabakiz.

Kultura Sailburuaren proposamenez, eta 1984.eko Ekainaren 12ko Gobernu Bileran eztabaidatu eta onartu ondoren.

1323

DECRETO 189/1984 de 12 de Junio, por el que se regula el régimen jurídico de los Euskaltegis y su financiación.

La Ley 29/1983 de 25 de Noviembre de creación del Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis, regula los aspectos básicos del régimen jurídico de los Euskaltegis a los que clasifica en públicos y privados en atención a su titular y a la vez clasifica a estos últimos en homologación y libres. Establece también que reglamentariamente se regulará el régimen de aportaciones de fondos públicos a Euskaltegis Municipales y subvenciones a privados homologados, disponiendo finalmente que los fondos destinados a tales fines se incorporarán a los presupuestos anuales de HABE.

En su virtud a propuesta del Consejero de Cultura, previa deliberación y aprobación en la Reunión de Gobierno de fecha 12 de Junio de 1984.

XEDATZEN DUT:

*Lehenengo artikulua*

1. 1983.eko Azaroaren 25eko 29. Legeak bere 16. artikuluan xedatuaren arabera, Euskaltegi pribatuak homologatuak eta libreak izan daitezke.

2. Euskaltegi bat homologatua ala librea den sailkapena, Kultura Sailaren Aginduz egingo da; Euskaltegiak aipaturiko 1983.eko 29. Legeak bere 17. artikuluak zehazten duen Erregistroan inskribitu aurretik.

3. Euskaltegi bat homologatu bezala sailakatzeko, beharrezko izango da titularrak horrela eskatzea eta 1984.eko Ekainaren 8ko Kultura Sailaren Aginduan erabakitako edo horren ordezko ebazpenen batean eman daitezkeen baldintzak betetzea.

4. Euskaltegi bat libretzat sailkatua izateko, beharrezkoa izango da jabearen eskaera eta 1984.eko Ekainaren 8ko Kultura Sailaren Aginduaren 8. artikuluko b) eta d) apartaduetan zehazten diren baldintzak betetzea. Eskaera horretan, halaber, zein euskaltegi publikori atxikita egon nahi duen ere zehaztuko da, eta era berean azken honen titularraren agiria atxikimendua onartuz.

*Bigarren artikulua*

1983.eko Azaroaren 25eko 29.Legeak bere 16. artikuluan a) apartaduan xedatuaren arabera HABEren Ikuskatzailetzat, Euskaltegi bat homologatu bezala sailkatu edo baieztatu eta handik bi urtetara, aipatu Euskaltegiak, Euskaltegi Homologatuei dagozkien baldintzak bete dituen ala ez txosten bat egingo du. Txosten hau HABEren Zuzendari Orokorrarenganа eramango da eta honek berriz Kultura Sailburuari luzatuko dio. Honek, Euskaltegiaren homologatua izatea onartu ala ez ebatziko duelarik.

Aurreko paragrafoan aipatzen den bi urteko epean ebazpen zehatzik egingo ez balitz, epe hori amaitu eta hilabetearen barruan Euskaltegi homologatua izatearen onarmena eskatuko du titularrak. Eskaerarik egingo ez balu, homologatu izateari uko egiten diola ulertuko da. Eskaera egin eta hilabete baten buruan ebazpen zehatzik ez balego, Euskaltegia homologatua izatea onartzen dela ulertuko da.

*Hirugarren artikulua*

1. HABEren menpeko Euskaltegi Publikoen finantzaketarako fondoak Erakunde horren urteko presupostuetan azalduko dira.

*Laugarren artikulua*

1. HABEk bere menpeko ez diren Euskaltegi Publikoen finantzaketarako laguntzak emango ditu bere ahalmenen arabera, hitzarmenen bidez. Hitzarmenok Euskaltegiaren Erakunde titularrak eta HABEren Zuzendari Orokorrak Erakunde horren izenean eta ordez izenpetuko dituzte.

2. Hitzarmen horietan, bi alderdien eskubide eta bete beharrak azalduko dira, baita hauek ez betetzeak ekarriko lituzkeen ondorioak. Dena den, beharrezko izango da Euskaltegia HABEren Erregistroan inskribitua egotea eta indarrean dauden xedapenak eta HABEren organuek, bere konpetentziaren ihardunean, emandako aginduek ezarritako baldintza guztiak betetzea. Hitzarmen horretan zehaztuko da, halaber, Euskaltegiaren jabeak bertako ikasleei gehienez zenbat diru kobratzeko baimena duen.

3. HABEren diru-laguntzak, Euskaltegiko irakaslegoaren soldata gordinak, material didaktikoa eta haltzariak erosteko gastuak ordaintzera irits liteke, gehienez.

DISPONGO:

*Artículo primero*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16 de la Ley 29/1983 de 25 de Noviembre los Euskaltegis privados podrán ser homologados y libres.

2. La clasificación del Euskaltegi homologado o libre se efectuará por Orden del Departamento de Cultura con carácter previo a su inscripción en el Registro de Euskaltegis a que se refiere el artículo 17 de la citada Ley 29/1983.

3. La clasificación de un Euskaltegi como homologado requerirá la solicitud de su titular en tal sentido y el cumplimiento de los requisitos establecidos por la Orden del Departamento de Cultura de 1984, o disposición que lo sustituya.

4. La clasificación de un Euskaltegi como libre requerirá la solicitud de su titular y el cumplimiento de los requisitos establecidos en los apartados b) y d) del artículo 8 de la Orden del Departamento de Cultura de Mayo de 1984. Dicha solicitud expresará también el Euskaltegi público al que se desea adscribir, así como la conformidad del titular de éste para que se proceda a tal adscripción.

*Artículo segundo*

De conformidad con lo dispuesto en el apartado a) del artículo 16 de la Ley 29/1983 de Noviembre, el Consejero de Cultura resolverá mediante resolución expresa la ratificación o la revocación del carácter homologado de cada Euskaltegi en el plazo de un mes a partir del día en que se cumplan los dos años de la clasificación de un Euskaltegi como homologado o de su ratificación como tal, previo informe de la Inspección de HABE sobre el cumplimiento por parte del Euskaltegi de los requisitos establecidos para los Euskaltegis homologados.

*Artículo tercero*

Los fondos destinados a la financiación de los Euskaltegis públicos dependientes de HABE constarán en los presupuestos anuales de dicho organismo.

*Artículo cuarto*

1. HABE colaborará dentro de las disponibilidades presupuestarias en la financiación de los Euskaltegis públicos no dependientes del mismo, a través de Convenios que serán suscritos por la Entidad titular del Euskaltegi y el Director General de HABE en nombre y representación de este Organismo.

2. En los Convenios a que se refiere el párrafo anterior se harán constar los derechos y obligaciones de las partes y las repercusiones para el caso de incumplimiento de éstas. En cualquier caso el Euskaltegi deberá estar inscrito en el Registro de Euskaltegis de HABE y cumplir con todos los requisitos establecidos por las disposiciones en vigor y las instrucciones dictadas por los Organos de HABE en el ejercicio de sus competencias. En el Convenio se fijarán también las cuotas máximas que está autorizado a percibir de los alumnos el titular del Euskaltegi.

3. Las aportaciones de HABE podrán cubrir como máximo las retribuciones brutas del personal del Euskaltegi, más los gastos de adquisición del material didáctico y de mobiliario.

*Boskarren artikulua*

1. HABEk Euskaltegi pribatuak subentzionatu egingo ditu bereziki homologatuak. Fondo hauek HABEren aurrekontuetan agertuko dira. Horretarako eta ekitaldi bakoitzaren barruan HABEren Zuzendari Orokorrak dagozkion subentziodeialdiak egingo ditu, berorietan honako puntu hauek beharrezkoak izango direlarik:

a) Euskaltegiek, aipaturiko subentzioak hartzeko eskubidea izateko beharko dituzten baldintza bereziak, eta baita indarrean dauden ebazpenetan erabakitakoak ere.

b) Subentzio-moduloak.

c) Laguntzapeko Euskaltegiek ikasleengandik jasotzea zilegi izango duten gehienezko diru-kopuruak.

2. Aurreko zenbakian aipaturiko Euskaltegiek, HABEren Lehendakariak onartua izan beharko dute bere Barne Araudia.

*Seigarren artikulua*

1. HABE Erakundeak bai Euskaltegi publikoei eta bai pribatuei ematen dizkien diru-laguntzak egoki erabil daitezen arduratuko da HABEren Ikuskatzailetza, eta horretarako aipaturiko Euskaltegietako agiri kontable guztiak aztertu ahal izango ditu.

2. Euskaltegiak agiri horiek erakusteari ezezkoa emateak edota ez edukitzeak, subentzioaren deseuztapena ekarriko luke, ekitaldian zehar jasotako diru-kopuruak itzuli beharko lituzkeelarik.

*Zazpigarren artikulua*

Euskaltegiren baten titular diren Zuzenbide Publikozko Erakundeek, Euskaltegi horiek publikotzat inskribatzea eska dezakete, HABEren Lehendakariari zuzenduriko eskaera eginez. Honek, eta 1984.eko Ekainaren 8ko Agindua zehazten diren baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagokion ebazpena emango du. Euskaltegien Erregistroan inskribitzeko agindu.

*Zortzigarren artikulua*

Euskaltegi baten titularrak, beronen titularitate aldaketa eska dezake, HABEren Lehendakariari zuzendutako eskaeraren bidez, honako beste agiriok erantsiko dituelarik:

— Euskaltegiari atxikitako ondasun eta eskubideen titularitate-transferentziaren ziurtagiria.

— Aipatutako transferentziarekiko titular berriaren adostasuna eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak betetzeko beraren hitza.

— HABEren Zuzendari Orokorraren Ebazpenez eska daitekeen beste edozein agiri.

AZKEN XEDAPENA

HABEren Lehendakariari, Dekretu honetan arautzen dena garatzeko eta aplikatzeko baimena ematen zaio. Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Gasteizen, 1984ko Ekainaren 12an.

Lehendakariak,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Kultura Sailburuak,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

*Artículo quinto*

1. HABE podrá subvencionar a los Euskaltegis privados preferentemente a los clasificados como homologados. A tal efecto y dentro de las disponibilidades presupuestarias de cada ejercicio, el Director General de HABE efectuará las correspondientes convocatorias de subvenciones en las que se hará constar necesariamente:

a) Los requisitos específicos que habrán de cumplir los Euskaltegis para hacerse acreedores de dichas subvenciones, además de las establecidas por las disposiciones vigentes.

b) Los módulos de subvención.

c) Las cuotas máximas que podrán percibir de sus alumnos los Euskaltegis subvencionados.

2. Los Euskaltegis a que se refiere el número anterior deberán tener aprobado por el Presidente de HABE su Reglamento de Régimen Interior.

*Artículo sexto*

1. La Inspección de HABE velará por el adecuado destino de las aportaciones de dicho organismo tanto a los Euskaltegis públicos como a los privados, pudiendo examinar a tal efecto todo tipo de documentos contables de dichos Euskaltegis.

2. La negativa del Euskaltegi a aportar dicha documentación o la inexistencia de la misma supondrá la revocación de la subvención con la consiguiente obligación de devolver las cantidades percibidas durante el correspondiente ejercicio.

*Artículo séptimo*

Las Entidades o Corporaciones de Derecho-público que sean titulares de Euskaltegis deberán solicitar la inscripción de éstos como públicos en el Registro de los Euskaltegis mediante instancia dirigida alla Presidente de HABE, el cual previa comprobación del cumplimiento de los requisitos establecidos en la Orden de Mayo de 1984 dictará la correspondiente Resolución, ordenando en su caso su inscripción en el Registro.

*Artículo octavo*

El titular de un Euskaltegi podrá solicitar el cambio de titularidad del mismo, mediante instancia dirigida al Presidente de HABE, al que acompañará:

— Documento acreditativo de la transferencia de la titularidad de los bienes y derechos adscritos al Euskaltegi.

— La conformidad del nuevo titular con dicha transmisión y su compromiso de cumplir con los requisitos exigidos por el ordenamiento vigente.

— Cuantos otros documentos se determinen por Resolución del Director General de HABE.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Presidente de HABE para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto que entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

Vitoria-Gasteiz, 12 de Junio de 1984.

El Presidente,
CARLOS GARAICOECHEA URRIZA.

El Consejero de Cultura,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.